

osasuna › Lore esentzien terapia



Hainbat arrazoiengatik sor daiteke azkura. **BERRIA**

Azkura jasangaitza denekoa



Uso-belarraren eta pagoaren esentziarekin arindu ez ezik, desagertu egiten da azkura

EUSEBIO GONZALEZ

Azkura azaleko narritadura edota inurridura da. Horren ondorioz, hazka egiteko beharra izaten da. Azkura azal guztian izan daiteke

edota leku zehatz batean bakarrik.

Askotariko arrazoiengatik gerta daiteke, baina hauek dira garrantzitsuenak: animalien hozkadak edota eztenkadak, eguzkitako erredurak, urtikaria, azal lehorra, dermatitisa, psoriasis, alergia, hepatitisa, giltzurrunetako gaixotasunak, botikek eragindako bigarren mailako ondorioak eta gibelesko gaixotasunak. Komeni da gaixotasun horiek baztertzea.

Azkura behin eta berriz errepikatzen denean, edota ez bada desagertzen, medikuarengana joatea komeni da. Hark diagnostikoa egin eta tratamendua jarriko

dio gaixoari. Horrekin batera har daitezkeen neurriak hauek dira: ez hazka egin, azkazalak ahalik eta motzena izan bestelako zauririk ez egiteko, artilezko arropak saihestu, ur epelarekin eta ph neutroko xaboiarekin dutsatu, krema hidratatzailea erabili, konpresa hotzak jarri azkura dagoen lekuan, ez egon denbora asko leku heze edota beroetan, eta ahalegin du azkuraz ahazteko gauzak egiten.

Uso-belarra oso eraginkorra da bai azkure zehatzentzat, eta baita orokorrentzat ere

Lore esentziak

Bachen terapiak bi landareren esentziak erabiltzen ditu azkura sendatzeko: uso-belarra (*agrimonia eupatoria*) eta pagoa (*fagus sylvatica*).

Uso-belarra oso eraginkorra da bai azkura zehatzentzat, eta baita orokorrentzat ere: ekzemak, urtikariak, intsektuen ziztadak... Kasu askotan azkurarekin mina izaten da, eta horretarako ere balio du uso-belarrak. Pagoa, berriz, leku zehatzetan izaten den azkurarako izaten da eraginkorra. Konjuntibitisa izaten denean begietan erabiltzen da, adibidez. Batik bat kremetan da ona. Begien kasuan kontuan izan suero fisio-

logikoarekin prestatu behar dela, eta ez ur mineralarekin. Izan ere, begien ph-a diferentea da.

Horrekin batera, badira oso emaitza onak ematen dituzten beste sistema batzuk. Horien artean, Ian Whiten esentzia australiarak nabarmentzen dira, batik bat *rough bluebell* (*trichodesma zeylacum*). Esentzia horiek bateragarriak dira Bachen esentziekin.

Kasu klinikoak

Gizona, 37 urte. Duela lau urteetik azkura du besoetan, eta oso deseroso dago. Medikuearengana joan zen aspaldi, baina hark agindutako tratamenduekin ez zuen hobekuntzarik antzeman. Ondoren, naturista batengana joan zen. Hark dieta garbia jarri zion, eta hasieran zertxobait hobera egin zuen arren, ondoren berdin jarraitzen zuen azkurak. Bi besoetan du azkura, eta nahiko gogorra da.

Lehen sintomak dutxa bat hartu ostean sumatu zituen. Egun, hezetasunarekin areagotu egiten zaio azkura. Hala azaldu zuen gertatzen zitzaiena: «Oso azkura bizia da. Hazka eginda ere ez zait kentzen. Nire aldartean, gainera, eragina du. Askoz sentiberago eta oldarkorrago nago. Nire lankide batek gomendatu dit lore esentzien terapia. Hari oso ondo joan zitzaien alergia sendatzeko».

Hasieran uso-belarraren eta pagoaren esentziak hartzea agindu zitzaien. Esentzia horien tantak eta krema hartu behar zituen, zehazki. 7 egunean tratamendu hori hartu, eta konsultara itzuli zen. Asko ez izan arren, sintomak hobera egin zuten. Hala, animatu egin zen tratamenduekin jarraitzea. Hala, haren egoera psikologiko eta fisikoaren arabera esentziak agindu zitzaizkion, tartean Ian Whiten esentzietako bat: *rough bluebell*. Hirugarren aldiz itzuli zenean sintomak nabarmen egin zuten hobera.

Dagoeneko egun osoak igarotzen zituen azkurarik gabe. Hiru hilabeteren buruan ez zuen sintomarik, eta arazoa izan aurretik zuen aldarte on eta baikorra berreskuratu zuen.

■ GALDEZKA

Nire lanaren eraginez, tendinitisa daukat sorbaldan; lore esentzien terapiarekin senda al daiteke?

Amia Arregi

Tendinitisa pairatu duten askok emaitza oso onak lortu dituzte lore esentzien terapiari esker, beste sendabide askok huts egin ostean. Arazo somatizatua denez, gomendagarria da lore esentziak hartzea—30 cc-ko tanta potea—eta ukenduak erabiltzea. Uken duak homeopatiaren oinarriak izan behar ditu, eta behar den tokian emango ditugu bakarrik, Orozco doktorearen pertsonen arteko patroian oinarrituz. Pertsonen arteko esentzia zehatzetan hauek ditugu: zumar zuria (*Ulmus procera*), berbena (*Verbena officinalis*), uso-belarra (*agrimonia eupatoria*), inpazientzia (*impatiens glandulifera*), Belengo izarra (*Ornithogalum umbellatum*) eta mahatsondoa (*Vitis*

vinifera). Zumar zuria min handiaren aurka erabili; berbena inflamazioarentzat, irmotasun dinamikoarengatik eta minak irradatzeko duen gaitasunagatik; uso-belarra *tortura* sentsazioaren kontra; inpazientzia min zorrotzarentzat; Belengo izarra arazoak irauten duenean eta trauma sortzen duenean; mahatsondoak berbenaren irmotasun dinamikoa indartzen du. Horri pertsona bakoitzari dagokion lore esentzia gaineratu behar zaio, tendinitisaren aurrean garatzen dituen sentsazio emozionalak eta mentalak aintzat hartuz. Alegia, minaren aurrean emozionalki eta mentalki orekatuko dituen formula prestatu behar da. ■ EUSEBIO GONZALEZ

Eusebio Gonzalez Martin

**PSIKOLOGOA
Lore Esentziak
BACH dk.**



OLARAN ETXEA

Herriko plaza, 3
2. solairua, A-6
20577 Antzuola
Gipuzkoa



Errege-Erregina
Katolikoak, 15
01013 – GASTEIZ

☎ 605-76 93 46
eusebiogm@euskalnet.net